

Balorezko proposamena

Gure enpresa batxilergoko eta DBH-ko laugarren mailako ikasleentzat dago zuzenduta; izan ere, ikasle hauek jasaten duten presioa oso handia da, batxilergoko ikasleak selektibitate probarako prestatzen dute bi urte horietan eta askok nota altua behar dutenez antsietate handia jasaten dute. Aldiz, DBH-ko ikasleek jasaten duten presio mota ezberdina da. Ikasle hauek DBH3an datorren ikasturteko hautazko ikasgaiak aukeratu behar dituzte eta aukeraketa honek zure bizitzako etorkizuna baldintzatzen du. Horretaz gain, oso gazteak direnez ez dakizkitez emozioak kudeatzen presiopean daudenean. Arazo honek, DBHko ikasleei, zein Batxilergoko ikasleei eragiten die. Horregatik dago beraiei zuzendua, ikasle hauen ongizate emozionala eta bereziki norberaren, zein inguruko baten antsietatea kudeatzen erakustea bilatzen dugulako. Hau lantzeko, hitzaldiak eskeiniko ditugu ikastetxeetan, antsietate egoera baten aurrean nola jokatu ikusteko eta tip-ak erakutsiko ditugu. Horretaz gain, arreta pertsonalizatua ere eskeintzen dugu.

Calm Mind filosofia teoria dinamiko batean zentratzen da, hori da beste enpresetaz bereizten gaituna. Gaur egun, hitzaldi ezberdin asko ematen dira, baina gure ustez, irakaskuntza-eredu tradizionalan zentratzen dira eta argi ikusi da metodologia hau ez dela oso eraginkorra adin tarte hauetan. Beraz, guk teoria guzti hori dinamiketan bihurtzen dugu. Honen bidez gazteen arreta eta parte hartzea lortzen dugu.

